

FAIRE DE BAYONNE UNE VILLE SÛRE ET APAISÉE BAIONA HIRI SEGURU ETA LASAIA BIHURTU HAR DE BAIONA UA VILA SEGURA E APATZADA



**Une action de proximité pour faire de Bayonne
une ville sûre et apaisée**

Biztanleetatik Estaturaino (justizia, polizia nazionala), elkarteetatik, eskoletatik, eremu publikoaren herriko kudeaketatik, hirizaintzatik... iraganez, eragile arrunt desberdinen mobilizazio koordinatua behar duen borroka kolektiboa da hiri seguru eta lasaitua eraikitzea. Koordinazio hau azkartzea dugu helburu.

Elkarteak eta hirizaintza bezalako hurbileko eragileak sostengatuko ditugu presentzia ikusgarria eta eraginkorra segurtatzeko tokian berean. Gatazkak, lehertu aitzin, identifikatzeko eta indargabetzeko baliabideak hartuko ditugu.

Auzotegi bizia auzotegi seguruagoa izanik, ez dugu Baionako auzotegi bat ere baztertuko, izan bizi ingurunea edo biztanleei eskaini perspektibak, eta bereziki jardunen dugu droga trafikoa plantatu ez dadin.

Ez dugu ahantziko ere denek hiri lasaitu batean bizitzeko eskubidea dutela eta diskriminazio, sexu eta sexismo bortizkeria eta LGBT pertsonen kontrako herra mota guzien aurka borrokatuko gara, eremu publikoan edo sare sozialetan adieraziak direlarik.

Gure proposamenak:

a. Herritarren zerbitzuan jarri.

Hainbat hurbileko elkarte eta proiektuk, auzotegian lokarri soziala berriz sortzeko eta batzuetan diru sarrera guti dituzten familia batzuei, prezio apaleko aktibitateak, nerabeei zuzenduak, besteak beste, eskaintzeko jarduten dute. Pentsatzen dugu, hurbileko eragile gisa, hirizaintzak dinamika hau sendo dezakeela.

- Elkartasunen eta prebentzioaren alorrean jadanik esku-hartzen duten elkarteen esperientzia balioan ezarri.
- Haien beharren diagnostikoa burutu molde eraginkorrean eta koordinaturik sostengatzeko gisan.
- Hirizaintzaren herritarrekiko hurbiltasuna azkartu, sozial hauskortasuna identifikatzean, elkarte eta jendarte langile eskudunengana igortzean, auzotegirako ekimenak antolatzean bermatuz, besteak beste.
- Auzotegietako kontseiluak bilakarazi eta Biztanleen etxeak garatu, herritarren partetik iritziak molde zuzenean bil ditzagun.
- Iritzi bilketa horietan bermatu auzotegiei egokiak zaizkien ekintza plan bat eraikitzeko.

b. Hirizaintza bere bitartekaritza eginkizunean lagundu

Hirizaintzarekin elkarlanean jardun gogo dugu, hau baitugu funtsezko bermea, herritarrak eta agertu arazoak ongi ezagutzen dituelako. Gatazkei aurre egiteko mediazio eginkizun garrantzitsua bete dezake bereziki; Iruñean arlo honetan eraman politika berritzaile eta eraginkorrean oinarritzen ahal gara, gure bi hirien arteko birazkatzea sendotzeko gisa horretan, aldi berean.

- Hirizaintzaren esperientzian oinarritu, izan lekuaren gaineko ezagutza edo formakuntza edo material mailan duten beharretan.
- Hirizaintzaren mediazio eginkizunean garatu:
 - Mediazioa, gatazka kudeantza eta jendarte orientazio arloko eskuduntzak, formakuntza edo irizpide berezien bitartez, kontratatzerakoan, azkartu.
 - Mediazioa sartu langileen ebaluaketa irizpideetan.
 - Mediazio permanentzia erregularrak, edo hitzordua hartuz, antolatu arreta berezi batean.
- Hirizaintza eta biztanleen arteko solasaldia lehenetsi, oinezko edo txirrindolazko patruilak emendatuz, ahal delarik.
- Esku-hartze lekuak kartografiatu (delinkuentzia, harrabots trabagarriak, zirkulazioa...) erantzun egokia ekartzeko.

c. Elkarreak eta herriko zerbitzuak koordinatu

Eragileen arteko koordinazioa plantan ezarriz dugu eraginkortasuna kausituko, bai segurtasun mailan eta bai prebentziokoan ere.

- Zerbitzuak eta ekintzak koordinatu Tokiko Segurtasun eta Delinkuentziaren Prebentzio Batzordearen bitartez (TSDPB bai eta herriarteko bertsioa HSDPB), honen osaketa zabaldu eta esku-hartze bereziak garatu auzotegika.
- Departamenduko Kontseiluarekin loturan, prebentzioa eta segipen taldeen garapena eta hedapena lagundu.
- Zigor konpontze neurrien plantan ezartzea lagundu, konpontze justizia zaharberritzaile neurriak proposatuz, hartuz eta egituratuz, ministerio publikoa, gazteriaren justizia babesa (GJB) eta elkarteekin lankidetzan.
- Hirizaintzarekin partaidetzan jarduten duten elkarteak inplikatu ekimen handien segurtasuna antolatzeko.

d. Droga trafikoa Baionan plantatzen ez utzi

Droga trafikoa Baionan ere garatzen da, beste lekuetan bezala. Biztanle eta elkarte batzuek aipatzen dute eraikin batzuen beheetan droga trafikoa garatzen dela, familia eta haurren aitzinean, segurtasun eskas eta baztertze sentimendua sorraziz, ondorioz. Droga kontsumo eta trafikoa, gehienbat Polizia nazionala eta Jendarmeriaren eskuduntzan bada ere, bai errepresioa eta prebentzioari dagokienez, herriko etxeak borroka hau eraginkorragoa bilakarazteko ahalak baditu.

- Eraikinen behealdeez berriz jabetu, biztanleen ekimenak sostengatuz eta hurbileko hirizaintzaren presentzia azkartuz.

- Gazteei zuzendu prebentzioa eta aktibitate programa proposatzen dituzten auzotegietako elkarteak sostengatu.
- Hunkituak diren auzotegietan, herriko etxeko zerbitzuen presentzia azkarragoa eta biztanle eta merkatarien iritzi bilketa dispositiboak segurtatu.
- Eskoletan esku-hartu ikasleak sentsibilizatzeko.
- Trafikoaren kontrako borrokarako zerbitzu desberdinen arteko koordinazioa azkartu.

e. Diskriminazio mota guzien kontrako borroka eta prebentzioa

Baiona, denentzako hiri seguru eta lasaia bilakarazi nahi dugu; arrazismoa eta diskriminazio guzien, sexuari, orientazio sexualari, adinari, elbarritasunari edo beste orotariko arrazoiari lotutakoen aurkako hutsik gabeko borroka eraman behar da horretarako.

- Barneko eta publiko zabalarenganako estereotipoen deseraikitze kanpainak eta formakuntza herriko langileentzat, publikoarekin harremana dutenei lehentasuna emanez (eskola, jendarte zentro, hirizaintza eta erakunde publikoak).
- Tokiko diskriminazioen behatokia sortu eta lurraldeko egoera akta burutu.
- Diru eta logistika mailako sostengua diskriminazioen aurka borrokatzen diren elkarteei.
- Berrikitan Urruñan sortu Emazteen Etxeari segida emateko emazte etxe sarearen sortzeari sostengua emazteei jasanarazi bortizkeria eta emazteek egitura publiko eta pribatuetan pairatu diskriminazio mota guzien aurka borrokatzeko.
- Biztanleen etxeak inplikatur elkarre eragileekin batzordeak plantan ezarri.
- Komunikazio eta ekimen kanpaina, gertakizun nagusien kariatara (martxoaren 21eko arrazismoaren aurkako eguna eta maiatzaren 17ko LGBTfobien aurkako nazioarteko egunak...).

f. Sexu eta sexismo bortizkerien (SSB) eta LGBTfobien aurkako borroka

Ehunka sexu bortizkeria eta etxeko edo familia barneko bortizkeria biktima dira urte guzietan Ipar Euskal Herrian; kasu gehien-gehienetan biktima hauek emazteak dira. Sare sozialetan, bortizkeriak beste motako bortizkeriak ere gero eta gehiago agertzen dira (jazarpena, irudi bahiketa...), bereziki emazte eta LGBT pertsonen aurka. Gaitz hau ez da jasangarria eta denek jardun behar dugu bortizkeria hauei aurre egiteko, atzemateko eta, bistan dena, biktimak laguntzeko.

- Angela dispositiboa bezala, jadanik dauden dispositiboen bilana eta sendotzea eta komunikazio, ohartarazte eta mobilizazio kanpainak (emazteei jasanarazi bortizkeriaren baztertzearen aldeko azaroaren 25eko eguna, diskriminazio anizkoitzen errealitatea...).
- Elkarrekin burutu entzute, harrera eta prebentzio lana sostengatu
- Gazteriarekin harremanetan diren langileak haurren hitzari eskaini harreraz ohartarazi
- Segurtasun indarrak eta herriko etxeko langileak familia barneko bortizkeriak identifikatzen ikasteko formakuntza berezia.
- Urgentziazko bizitegi aterabideak sortu eta garatu eta diskriminazioak eta bortizkeriak jasan dituzten biktimak hartzen dituzten elkarreentzako aretoen esku uztea.
- Biktimei zuzendu libildide irakurgarria plantan ezarri.
- Baionako bestak, xingar feria eta beste ikuskizunak: SSB-en kontrako protokolo eraginkor bat, egun, gaualdi eta gaueko prebentzio eta entzute erakusmahaiak, erasotzaileei eta ez biktimei zuzendu komunikazioa, erreakzio publikoa eraso bat gertatzerakoan, bestako eragile guzien formakuntza... plantan ezarri eta aplikatu.